

POBREZIAREN AURKA

SAKATU!

CONGDEN eta AUTONOMI ERKIDEGOETAKO KOORDINAKUNDE FEDERATUTAN federatutako 400 GGKE baino gehiagok, eta espainiar gizarte zibila ordezkatzeko duten beste eragile batzuek, 100 herrialde baino gehiagotako gizarte erakundeek eta mugimenduen arteko koordinazio estuan, "pobreziaren kontra borrokatzeko Deialdi Bateratua" egin dugu 2005. urtean, eta

GURE AHOTSAK BATUZ ONDOKOA ADIERAZTEN DUGU:

MUNDU honetan ezin justifikatuzkoak dira pobrezia eta desberdintasuna. Azken hamarkadotan ahalegin handiak egin badira ere, aberatsen eta txiroen arteko zuloa handitu egin da. 3.000 milioi pertsona baino gehiagok ez dute bizimodu duinik, pobrezian bizi direlako hain zuzen ere. Gosea, HIESa, analfabetismoa, emakumeen eta nesken kontrako diskriminazioa, naturaren kontrako erasoak, gatazkengatik desplazamendu masiboak eta nazioarteko aberastasunaren banaketa bidegabearen ondoriozko migrazioak arazo berberaren alderdi desberdinak dira, alegia: planetako herritarrik gehienek pairatzen duten injustizia.

PLANETAko garapen iraunkorra guztiz mehatxaturik dago munduko herritarren bostenak axolagabeki kontsumitzen duelako, eta beraz, naturako baliabideak neurritz kanpo ustiatzen dituztelako.

DESBERDINTASUNa eta pobrezia dago munduan, baina gizakiok gure jarduera politiko eta ekonomikoa antolatzen ez dakigulako sortu da desberdintasun eta pobrezia hori. Izan ere, nazioarteko merkataritza bidegabeak eta finantza espekulazioak ekonomia boteretsuenak lehenesten dituzte, kanpo zorra itogarria eta bidegabea da herrialde pobretu askorentzat eta koordinaziorik gabeko nazioarteko laguntza sistema eskas bat baino ez dugu. Horrek guztiak jasanezin egiten du egoera.

NAZIOARTEKO

Garapen politiken, Giza Garapen Iraunkorraren eta Ondasun Publiko Globalen eragingarritasuna lortu nahi badugu, gobernantza demokratiko eta partehartzailea behar dugu.

AZKEN

urteotako ekonomi hazkunde izugarriak ez du balio izan giza eskubideak bermatzeko, ez eta munduko eskualde eta pertsona guztien bizi baldintzak hobetzeko, edozein delarik ere pertsonon izaera, generoa, arraza edo kultura. Aitzitik, neurritz kanpo handitu dira desberdintasun eta bidegabekeria. Bakerako bidea urratzeko, ezinbestekoa da pobreziaren eta ekitate ezaren aurka borrokatzea.

POBREZIAREN

kontra borrokatzeko, pertsonen bazterkeriaren aurka egin behar da; pertsonen eskubide ekonomikoa, sozial eta kulturalak aldeztu behar dira, hau da, babesaren, lan duinaren, errentaren, osasunaren eta hezkuntzaren alde borrokatu behar da; boterea, ahotsa, bizitzeko baliabideak eta berdintasun baldintzak ahalbidetu behar dira. Konpromiso ezin utzikoa eta atzerazina da: gizarte osoak lorpen horien erantzule behar du izan.

HORI GUZTIA DELA ETA,

Milurtekoaren Garapen Helburuak betetze aldera, bat egiten dugu 2000. urtean Nazio Batuen Milurtekoaren Adierazpena sinatu zuten gobernu eta estatuek hartutako konpromisoarekin, gosetea eta pobrezia ezabatzeke lehenengo urratsa izan baitaiteke. Pobreziaren kontra borrokatzeko deialdi globala

HAUXE ESKATZEN DUGU:

LAGUNTZA OFIZIAL GEHIAGO garapenerako, hau da, lehenetsuna ematea oinarritzko gizarte sektoreei, %0,7ko konpromiso-ara heldu arte.

LAGUNTZA HOBEA herri pobreenentzat, merkataritza interesetatik kanpo eta Milurtekoaren helburuekin bat etorrita.

KOHERENTZIA GEHIAGO gure gobernu politiken artean, politika guztiak pobrezia ezabatzerara bidera daitezten.

ORDAINDU EZINEKO ZORRA BARKATZEA: herri aberatsek, Mundu Bankuak eta NMFk herri txiroenen zorraren %100 barkatu behar dute.

ZORRA GARAPENAREN TRUK: herri txiroetuen zorra barkatzea eta baliabideak Milurtekoaren Helburuak lortzera bideratzea.

NAZIOARTEKO MERKATARITZAREN ARAUAK ALDATZEA, oraingoak herri aberatsen eta euren negozioen aldekoak direlako, eta ez dietelako aukerarik ematen herri txiroetuen gobernuak pobrezia aurka borrokatzeko ez eta ingurumena babesteko.

LAGUNTZA BATZUK EZABATZEA, herri aberatsen produktuak produkzio kostua baino merkeago esporta ez daitezten, herri txiroetuen nekazaritza erkidegoen bizimodua hondatzen dutelako.

ZERBITZU PUBLIKOAK liberalizazio eta pribatizaziotik BABESTE, elikatze eskubidea, edateko ura eta oinarritzko botikak bermatze aldera.

TEKNOLOGIARAKO SARBIDEA garapen txikiagoa duten herrialdeentzat, teknologiaren abantailez baliatu daitezten.

ACCION CONTRA EL HAMBRE ACCION VERAPAZ ACSUR - LAS SEGOVIAS ADRA AIETI ALBOAN FUNDACION PARA EL DESARROLLO AMIGOS DE LA TIERRA ARQUITECTOS SIN FRONTERAS-ESPAÑA ASAMBLEA DE COOPERACION POR LA PAZ ASOC. MENSAJEROS DE LA PAZ ASOC. AMIGOS DEL CUARTO MUNDO ASOC. AMIGOS DEL PUEBLO SAHARALI ASOC. IUVE ASOC. NUEVOS CAMINOS ASOC. PROPERU A.D.S. AYUDA, DESARROLLO Y SOLIDARIDAD AYUDA EN ACCION CARITAS ESPAÑOLA CEAR CIDEAL CESAL CIC COLECTIVOS DE ACCION SOLIDARIA (C.A.S.) COOPERACCION CODESPA COOPERACION INTERNACIONAL CRUZ ROJA ESPAÑOLA EDIFICANDO-COMUNIDAD DE NAZARETH EDUCACION SIN FRONTERAS ENTREPUEBLOS ECOE FARMACEUTICOS MUNDI FARMACEUTICOS SIN FRONTERAS FEDERACION DE RELIGIOSOS SANITARIOS FEDERACION SERSO FERRE COOPERACION INTERNACIONAL FUNDACION ADIS FUNDACION ANAR FUNDACION DEL VALLE FUNDESO ECONOMISTAS SIN FRONTERAS ENTRE CULTURAS-FE Y ALEGRIA FUNDACION HUMANISMO Y DEMOCRACIA FUNDACION IBEROAMERICA-EUROPA (CIPIE) FIADELSO F.I.S.C. FUNDACION AMREF FUNDACION PAZ Y SOLIDARIDAD FUNDACION PRODEIN FUNDACION PROMOCION SOCIAL DE LA CULTURA FUNDACION RUBEN DARIO - CAMPO CIUDAD INGENIERIA SIN FRONTERAS FEDERACION ESPAÑOLA IPADE ISCOO INTERED INTERMUN OXFAM JOVENES DEL TERCER MUNDO JUAN CIUDAD ONGD JUSTICIA Y PAZ LIGA ESPAÑOLA DE LA EDUCACION Y LA CULTURA POPULAR LIGA ESPAÑOLA PRO-DERECHOS HUMANOS MADRESELVA MANOS UNIDAS MEDICOS DEL MUNDO MEDICOS SIN FRONTERAS MEDICUS MUNDI MISION AMERICA MON-3 MOVIMIENTO POR LA PAZ (MPOL) MUJERES EN ZONA DE CONFLICTO OCASHA-CRISTIANOS CON EL SUR OCSI OSPAAAL PAZ Y COOPERACION PAZ Y DESARROLLO PAZ Y TERCER MUNDO PERSONAS PROSALUS PROYDE PROYECTO CULTURA Y SOLIDARIDAD PROYECTO LOCAL PROYECTO SOLIDARIO PUEBLOS HERMANOS SAVE THE CHILDREN SETEM SOLIDARIDAD INTERNACIONAL SED SOLIDARIOS PARA EL DESARROLLO SOTERMUN UNICEF-COMITE ESPAÑOL UNEFA UNIS VETERINARIOS SIN FRONTERAS

Coordinadoras Autonómicas de ONGD de

Andalucía, Aragón, Baleares, Cantabria, Castilla y León, Castilla La Mancha, Cataluña, Euskadi, Madrid, Murcia, La Rioja, Galicia, Navarra, Comunidad Valenciana.



www.pobreza.cero.org